



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

ETBri buruz (berriro)

ETB hainbat urtez *ETB1ean* esaten ibili ondoren, duela aste batzuk *ETB1en* esaten hasi zaigu, horrela noren eta non kasuen arteko nahasmena sortuz entzuleongan. Joxan Erdoizak egunkari honetan bere kexua azaldu zuen eta berarekin ados naiz. Horra non agertu zaigun otsailaren 4an Asier Larrinaga ETBko euskara saileko burua bere azalpenak ematen. Ongi egina. Francoren garaiko ikastoletan ikasten hasi ginenok gora-behera asko ezagutu ditugu euskara idatzian eta, egia esan, aspertu ere egiten zaren unea iristen da, izan ere, Euskaltzaindiak hartutako erabaki egonkorrak *normaltzat* hartzen ditugu eta zerbait dantz dabilenean (*ohiko-ohizko* bikote famatua mila adibideren eredu), horixe da gogoan hartzen duguna. Hortaz, Asier Larrinagak dioena egia da, baina neurri berean du Joxan Erdoizak kexatzeko eskubidea. Kokoteraino gaude norbaitek esku arinez eta magiaz bezala ematen dizkigun aldaketa hauek jasotzeaz *-deserabakiak* esaten die jende xumeak-. Egia esan, urteetan *ETB1ean* entzuten egon ondoren, zergatik etorri behar du inork orain *ETB1en* esan behar dela esaten?

Euskaltzaindiaren erabakiek anitzetan sentiarazten dio euskaldun xeheari euskaraz ez dakiela ongi. Erabakiak hartu egin behar dira, hizkuntza normalizatuko badugu, baina *deserabakiak* dira nazkatzen gaituztenak. Benetan. Nik, beste askok bezala, erabaki eta *deserabaki* santu horiekiko intsumiso izaten ikasi dut, gero eta gehiago. **Aitor Arana** • AZPEITIA (GIPIZKOA)

Egiaren aldeko urrats bat

Pasa den asteazkeneko egunkariak Eusko Jaurlaritzak Iñigo Egiluze euskal kooperantearen heriotzaren inguruan egia jakiteko egiten ari diren ikerketa judizialtan parte hartzea erabaki duen berria zekarren.

Berri hori irakurritakoan zeharo poztu egin gara, Chocoko departamentu kolonbiarrean eraildako euskal kooperante horrek eta haren familia eta adiskideek egia mezezi baitute.

Egiarekin ez da, zoritxarrez, kooperante gazte hori gure artera bueltatuko, baina haren inguruko argipenak gertakizun horiek errepikatzea ekiditeko bide bakarra da.

Egia, beraz, Eusko Jaurlaritzak oso ongi ulertu duen moduan, guztiz beharrezkoa da Kolonbiarentzat, zinez zoriontzen dugu Eusko Jaurlaritzak ekintza honengatik.

Baina egia ez da Kolonbian bakarrik behar, eta giza eskubideak zanpatu dituen estatu bakarra ez da Kolonia izan, hemen Euskal Herrian euskal militanteak erailak eta desagertaraziak izan dira, hemen ere zauri horiek garbitu behar ditugu, hemen ere egia behar dugu.

Gure talde honek —senide eta adiskideez osatua— Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko Biktimen Ponentzian zita eskatu du, ez biktima bezala, gure senide eta adiskideak ez baitira minnez definitzen Euskal Herriaren askapenaren alde egindako lan duina bezala, baina militanteen senide eta lagun moduan bilera eskatu dugu. **Santiago Gonzalez** • (*Egia, Justizia, Oroitzapena taldearen izenean*)

UPV: borrheroak baditu hamaika izen

Kazetaritzaz zerbait badakigunez, ezagunak egiten zaizkigu beronen arauak, eta menpekotasunak. Eta hau gogora ekarri nahi dugu, otsailaren 1ean Leioako Irakasle Errespresaliatuen Kolektiboak eta Jose Mari Sarasibar abokatuak eman zuen prentsaurrekoan esandako gauza batzuk nola isildu diren ikusita. Kontsultatu dugun prentsa idatzian, guztian, ezkutatu egin dira espultsioaren erantzukizuna duten ia guztien izenak. Gu Leioako campusetik espultsatzeko aginduak izen-abizenak ditu. Esan genuenez, espultsio haren erantzukizuna, Goiena eta Salabururen errektore-taldeena da, Lopez Basagurenena —berak erredaktatu baitzuen— eta Juan Antonio Rivasena —behin eta berriro deitu baitzion Ertzaintzari gu detentzeko—; ordena ilegal hura berretsi zuten Gobernu-Batzarretako kideena; Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko dekanok izandako Zunzunegi, Mingolarra, Montero, eta hauen taldeena, oso modu sutsuan bete zutelako agindua; gertatzen zena ikusi arren, beste aldera begiratu zuten unibertsitarioena; Protecsa eta zerbitzu juridikoak ehunka milioi ordainduz finantzatu zituztena; eta politikoen, UPVn gertatzen zenaz hainbat aldiz informatu arren, ezkutatu egin baitzuten, etab. Ez da dena errepre-sioa izan urte hits hauetan: beti bezala, pertsona justu gutxi batzuek elkartasuna zer den erakutsi zuten. Ez dezagun ahantzi, giza egitate bakoitzak bere protagonistak dituela, eta horiek ezkutatzek ez diola mesederik egiten egia. **J.M. Zalakain** • (*Leioako Irakasle Errespresaliatuen Kolektiboaren izenean*)

galdeiozu...



Sagrario Aleman

ARTURO CAMPION EUSKALTEGIKO
ARDURADUNA

Euskal Herriko politikan azken bi urteetan gertatutakoa gertatu ondoren, itxaropentsu al zara? Bakea hurbil al dugu?

Iñaki Aizpuru [Zumaia]

■ **ITXAROPENTSU BETI**, kritiko ere bai. Gorabehera handiak bizi ditugu, eta epe luze xamarrean bizi beharko, gainera; ez nuke behintzat, oraingo honetan geldituko nahiko.

Bakea hurbil? Ez dakit; egia esan, ez dut helburutzat bakea, justizia baizik. Hitz huts xamarra iruditzen zait bakea; batez ere, ulertzen den moduan ulerturik, euskaldunoi borroka armatua gaitzetsiz, eta zapaltzen gaituzten estatuek bide hori erabil dezaten zilegitzat joaz edo zailantzan jarri gabe, betiere.

Otsailaren 8tik aurrera
Jokin Azkue • HABEKO
ZUZENDARIA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

